

Zenbait prekarietate-egoera konpontzea du helburu

Vital Kutxak etxebizitza bat ordaintzerik ez dutenei bizitokia eskaintzeko zentro bat bultzatzen du

- **Belen Abegi Etxearen helburua, oinarrizko bizitoki-beharrizana konpontzea da, batez ere, euren kargura ume txikiak dituzten familiei eta emakumeei, bai halaber, pertsona horiei prestakuntza- eta lan-baliabideak eskaintzea, errazagoa izan dadin beraien gizarteratzea**

Gasteiz, 2015eko martxoaren 18a.- Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak egitasmo berri bat bultzatu eta finantzatzen du, prekarietate-egoeran dauden familia batzuei bizitoki partekatu bat eskaintzeko, egonaldi mugatu baterako. Belen Abegi Etxea (Betoñuko atea 12), etxebizitza bat ordaintzeari aurre ezin egin diotenen bizitoki-betebeharrak estaltzeko sortu da. **Berakah** eta **Bizitza Berria** elkarteek gauzatzen dutelarik, ekimena, familiei eta euren kargura ume txikiak dituzten emakumeei, bai eta gerta daitezkeen antzeko beste kasu batzuei dago zuzenduta.

Baliabide hori Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak gizartean izaten dituen esku-hartzeen programaren barruan kokatzen da eta, hura abian ipiniz, erakundeak bere jardun-ildo nagusietako batean beste urrats bat ematea bilatzen du, alegia: txirotasunaren eta desberdintasunen aurkako borrokan jardutea, gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa proiektatuz. Belen Abegi Etxearen bitartez, asmoa da, oinarrizko beharrianak betetzeko aukera ematea, erroldan sei hilabeteko antzinatasunera heltzen ez eta baliabide haiek ezin ordaindu ditzaketan familiei.

Fernando Aránguiz erakundeko presidentearen hitzak hona aldatuz, “zentro horrek instituzioek garatzen dituzten programetan euren egoerari moldatzen zaion erantzunik aurkitzen ez duten pertsonen lagundu nahi die”. Kontua da, “ahaleginak ez bikoiztea, halako eraz ezen, hirian dauden gizarte-baliabide desberdinen hartzailak ere desberdinak izan daitezten eta gizarte-estaldura zabalagoa izan ahal dadin”.

Belén Abegi-etxea bizitoki partekatuko zentro bat da, aldi baterakoa eta denbora-muga batekin (6 hilabete), ezen beraren helburua da, gizarteratzeko eta laneratzeko bide gisa balio izatea erabiltzaileentzat, eta sei familia-unitate hartu ditzake. Familiei eta euren kargura ume txikiak dituzten emakumeei zuzenduta badago ere, antzeko irtenbidea eskatzen duen egoeraren bat jasaten ari diren pertsonak ere hartu ditzake.

Bizitokiaz gain, familia bakoitzak arduradun edo tutore baten orientazioa ere jasoko dute. Tutoretzaren helburu nagusiak dira, prestakuntzako eta diruzko baliabideetarako sarbidea



erraztea, txikien zaintza erabatekoa eta, Belen Abegi-etxean dauden denbora horretan lana eta etxebizitza bilatzea. Orobat, familiek aukera izango dute prestakuntzako baliabideetan sartzeko, esku hartze pertsonalizatu baten bitartez beraien gizarteratzea erraztea xede.

Eginkizun hori gauzatzeko, Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak akordio bat sinatu du Berakah programarekin eta Bizitza Berria elkartearekin; Erakundeak bi kolektibo horiekin baditu beste zenbait lankidetzeta-hitzarmen ere. Urtero, marjinazioa eta gizarte-bazterketa prebenitzearren bi elkarte horiek abian ipintzen dituzten hainbat ekimen Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak ordaintzen ditu zenbait akordioen bitartez; ekarpena guztira 181.000 eurokoa izaten da.

Zehazki, Gasteizko Alde Historikoko Batasun Pastoralaren mendeko **Berakah programaren** boluntario-taldea arduratuko da egoiliarak bideratzeaz, abegi egiteaz eta eguneroko jarraipena egiteaz. Instalazioetan dauden denboran, gainera, ohitura batzuk irakatsiko zaizkie, lan-, gizarte- eta kultura-ingurunean moldatzeko eta egokitzeko prozesua errazago izan dakien, eta halaber, haien eskura ipiniko dira zenbait baliabide sozio-hezkuntzazko, ezarritako epeetan markatutako helburuak betetzea ahalbidetu diezaieten. Laguntze-lantalde bat arduratuko da prozesu horien jarraipena egiteaz.

Bestalde, **Bizitza Berria** elkarteak familia horien jarraipen teknika egiteaz arduratuko da. Haren eginkizunen artean daude: abegi-onuradun familien gaineko gizarte-txosten bat egitea; haien egoera psikosoziala baloratzea; familian esku hartzeko proiektu bat antolatzea, haien gizarteratzea helburu, betiere, eta gizarteratze-prozesuan beharrezkoak diren administrazio-tramiteak gestionatzea eta burutzea. Orobat, Bizitza Berriak beste konpromiso bat hartzen du: zenbait bizitoki-baliabide egonkor prest edukitzea, Belen Abegi-etxeke egonaldiaren ondoren pertsona horiek beste baliabideren bat eduki dezaten.

- **Informazio gehiago**

Vital Kutxaren Gizarte Ekintza

Komunikazio Saila

Telefonoak: 945 154 174 / 688 679 752

E-mail: vitalobrasocial@cajavital.es